

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

10/2022 Foru Araua, maiatzaren 11koa, 6/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 12koa, baliozkotzeko dena, onesteko alda daitezela zerbitzu digital jakinen gaineko zerga eta finantza transakzioen gaineko zerga

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko maiatzaren 11n egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

10/2022 Foru Araua, maiatzaren 11koa, 6/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 12koa, baliozkotzeko dena, onesteko alda daitezela zerbitzu digital jakinen gaineko zerga eta finantza transakzioen gaineko zerga.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, apirilaren 12ko 6/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko alda daitezela zerbitzu digital jakinen gaineko zerga eta finantza transakzioen gaineko zerga.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da apirilaren 12ko 6/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko alda daitezela zerbitzu digital jakinen gaineko zerga eta finantza transakzioen gaineko zerga.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 11

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA